



## **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO HEZKUNTZA LEGEAREN AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA.**

---

Txosten hau Hezkuntza Sailak eskatuta landu da, bat etorrira Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen 19.6 artikulua Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari esleitutako eskumenarekin.

Txostenaren helburua da egiaztatzea behar bezala aplikatzen direla bai Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen 19. artikulua, bai, halaber, Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa egiteko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko Jarraibideak, Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko erabakiaren bidez onetsiak, eta, horrekin batera, hobekuntza-proposamenak egitea.

Eskatutako txostenaren aztergaia den lege-aurreproiektuaren helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko hezkuntza-sistema pixkanaka eraldatzeko oinarriak arautzea, euskal gizartearen eskakizunetara egokitzea helburu. Eraldaketa hori ekitatea eta bikaintasuna oinarri hartuta egituratzen da, eta honako lorpen hauek bultzatzen ditu: inklusioa eta gizarte-kohesioa, ebaluazioaren kultura haren irismenik zabalenean, euskara eta euskal kultura ardatz hartzen dituen eredu eleaniztun eta kulturartekoa, baita bi hizkuntza ofizialak menderatzea eta gutxienez atzerriko hizkuntza bat ondo ezagutzea ere. Lege honen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira unibertsitate-sistema eta lanbide-heziketa, berriazko araudiak arautzen baitituzte.

Beraz, xedapen orokorra ebaluatu behar da zer-nolako genero-eragina duen ikusteko, Lehenengo Jarraibidearen 2.1 apartatuan ezarritakoarekin bat etorritz. Horretarako, araua sustatu duen organoak generoaren araberako inpaktuari buruzko txostena egin du, I. eranskinean aurreikusitako baldintzetan, eta Lehenengo Jarraibidearen 3. eta 4. apartatuetan aurreikusitakoarekin bat etorritz.

Bidalitako **eragin-txostenean**, lege-proiektuaren deskribapen orokorra egiten da, eta baieztatzen da emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuen artean ekitatera eta berdintasunera bideratutako hezkuntza bermatuko dela, hezkidetzaren aldeko eskola-eredua lortuko dela, sexuaren araberako estereotipoak eta rolak alde batera utzita, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatuko duten hezkuntza-praktikak eta -espazioak sustatuko direla.

Era berean, txostenak jasotzen du helburu horiek **EAEko Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetzaren Planaren** zutabeetan oinarrituko direla. Horri dagokionez, adierazi behar dugu lege-aurreproiektuaren artikuluetan, berez, ez direla aipatzen bertan zeharka definitutako zutabeak, ezta hezkidetzaren eskolarantz jotzeko funtsezko elementuak ere, eta oso garrantzitsua dela hori jasotzea; izan ere, gizonen eta emakumeen arteko eskubide-, tratu- eta aukera-berdintasunaren aldeko hezkuntza da estrategiarik onena genero-indarkeria agertzea prebenitzeko, haren edozein adierazpenetan. «EAEko Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetzaren Plana, berdintasunaren eta tratu onaren bidean (2019-2023)» planak 4/2005 Legeak hezkuntza alorrean ezarritakoari erantzuten dio. Hezkidetzak gure erkidegoan duen egoera aztertzen du, eta esku-hartzeen esparruetan landu beharreko zenbait arlo tematiko planteatzen ditu (prestakuntza, baliabideak prestatzea, proiektuak eta

jarduketa zehatzak diseinatzea, ebaluatzea eta jarraipena egitea, eta abar). Halaber, ikasleen artean elkarrizketa, interakzioak, elkartasuna, berdintasuna eta errespetua ahalbidetzen dituzten metodologiaren erabilera nabarmentzen du. Beraz, Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Legearekin eta Euskal Eskola Publikoari buruzko Legearekin batera, II. Hezkidetzako Plana eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako 4/2005 Legea ere jaso beharko lirateke lege-aurreproiektuaren zioen azalpenean. Aurrerago adieraziko dugun bezala, egokiagoa iruditzen zaigu «berdintasun» terminoa erabiltzea «ekitate» terminoaren ordeztu, baita legearen zioen azalpenean ere.

Bestalde, **genero-eraginaren aurreko ebaluazioari** dagokionez, egoeraren azterketan, EAEko ikasleei buruzko datuak aurkeztu dira sexuaren arabera bereizita, irakasleei buruzko datuak sexuaren eta hezkuntza-mailaren arabera bereizita, bai eta hezkuntza-sistema osoaren funtzionamenduz familia/ikastetxea/komunitatea erlaziotik eratorritako datuak ere. Hala, datu horiek guztiak zehatz-mehatz aztertuta, txostenean honako hau ondorioztatzen da:

- Derrigorrezko etapetan, nesken eta mutilen ehunekoa antzekoa da, % 50 ingurukoa; hala ere, derrigorrezkoen osteko etapetan, Batxilergoan eta Helduentzako Hezkuntzan, neskak mutilak baino ia 10 puntu gehiago dira, eta Hezkuntza Berezia eta Lanbide Heziketan mutilak neskak baino ia 30 puntu gehiago.
- Emakumezko gazteek tradizioz gehienbat emakumeei lotutako prestakuntza-ibilbideak aukeratzen jarraitzen dute; hala nola humanitateak, gizarte-zientziak, eta abar. Gizonezko gazteek, berriz, gehiago aukeratzen dituzte zientziak, matematikak, teknologia, eta abar.

- Neskak ez-egokitasuneko egoeran dauden ikasle guztien % 40 dira, eta mutilak, % 60 inguru.
- Neskek mutilek baino emaitza hobekak lortzen dituzte euskara eta ingelesezko hizkuntza-komunikazioko gaitasunetan, gaitasun zientifikoan eta ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasunean.
- Irakaskuntza, oro har, eremu feminizatu bihurtu da; hala ere, baieztapen horri ñabardurak egin dakizkioke irakaskuntza motaren, jakintza-arloaren eta lanbide-kategorien arabera.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako irakasleen feminizazio handia dago, eta proportzio hori nabarmen jaisten da, alderantzikatu arte, unibertsitateko edo lanbide-heziketako irakasleen artean.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako mailetan ia ez dago erreferente maskulinorik haurrentzat, eta horrek zaintza-lana emakumeekin lotzen jarraitzen laguntzen du.
- Ikastetxeetan aitek duten parte-hartzea handitu den arren, askotan amek gehiago parte hartzen dute, eta Hezkidetzaren eta Genero Indarkeriaren Prebentziorako Plan Orokorra hobetzeko proposamen gisa jasotzen da «*ikastetxeak aitei irekitzea*».

Datu horietatik guztietatik ondorioztatzen da desberdintasun horien guztien azpian kausak hainbat motatakoak izan daitezkeela, eta horretan eragina izan dezaketela sozializazio-prozesu berezituak, batzuen eta besteen asmoak, ingurune sozioekonomikoak, jatorrizko edo erreferentziako testuinguru geografiko edo kulturalak, eta abarrak. Horrek epe luzera eragin diferentziala sortzen du prestakuntza-hautuetan eta lan-merkatuako lanbide-orientazioan, eta, azkenik, eragina izango du laneratzeari, errentari, enplegu-kalitateari eta abarri dagokienez. Era berean, eta igorritako txostenak berak jasotzen duen bezala, «*prestakuntza-*



*ibilbide jakin batzuk aukeratzeak berdintasuneko izatetik urrun dagoen errealitate bat eta aurrerapen txikiak dituen eremu bat uzten ditu agerian». Ildo horretatik, Emakundek landutako material sektorialetik egiaztatzen da, emakumezko gazteek, oro har, bokazio zientifiko-teknologiko txikiagoa erakusten dutela, eta horretan ezinbesteko eragina daukate, besteak beste, genero-rolak onartu eta betetzeak, neskek beren gaitasun matematikoez eta zientifikoez duten autopertzepzio okerragoak eta esparru horietan dauzkaten aukeren inguruko motibazioak, eta baita irakasleen artean emakume erreferenterik ez izateak ere.*

Hala ere, gogorarazi nahi dugu arauak generoarekiko neutroak direla pentsatzea ohikoa den arren, herritar guztien onuran pentsatuz diseinatu direlako eta, beraz, pertsona guztientzat modu berean diseinatu direlako, emakumeen eta gizonen artean bereizketarik egin gabe, egia esan, desberdintasun-egoera batetik abiatzen dena berdin tratatzea, praktikan, desberdintasun horiek betikotzearen parekoa dela.

Txostenak, ildo horretatik, jasotzen du arauak eragin positiboa izango duela, argudiatuz lege-aurreproiektuak hezkidetza-eredu bat bilatzen duela, sexuaren araberako estereotipoak eta rolak alde batera utzita. Hala ere, erakunde honetatik berriro diogu sexismoa eta genero-estereotipoak erreproduzitzen jarraitzen duten balio androzentrista eta patriarkal horien transmisioa nabarmendu beharra dagoela eta transmisio hori egiten duen mekanismo-sistema konplexua aztertu behar dela: ikastetxeen antolaketa, curriculum akademikoa, ikasten diren eta ikasten ez diren ikasgaiak, espazioen egituraketa, jokabide-kodeak, testuliburuak eta material didaktikoak, irakaskuntza-metodologiak, irakasleen jarrerak eta asmoak, orientazio akademikoa eta profesionala, hizkuntzaren eta irudien erabilera, berdinen arteko harremanak, ikasle eta irakasleen arteko harremanak, irakasleen artekoak, jakintzaren pertsona erreferenteak, eta abar.

Bestalde, *EAEko Hezkuntza Sistemarako II. Hezkidetza Planak* hezkidetzak gure erkidegoan duen egoera aztertu du, eta esku-hartzeko esparruetan landu beharreko zenbait arlo tematiko planteatu ditu (prestakuntza, baliabideak prestatzea, proiektuak eta jarduketak zehatzak diseinatzea, ebaluatzea eta jarraipena egitea, eta abar). Era berean, hezkuntza-sistemak hezkidetza-eskola baterantz jotzeko sistema horren funtsezko elementuak ezarri ditu, aldaketa-eragile izan dadin (berdintasuna eta hezkidetza sustatzeko egiturak sortzea, hezkidetzan trebatutako irakasleak, hezkidetza-plan bat, familien inplikazioa eta hezkidetza-materiala), eta horiek, neurri batean, faltan sumatzen dira arauan.

Hala, gauza jakina da, *I. Hezkidetza Planean (2013-2017)* ikastetxeetarako planteatu zen erronkari dagokionez («*genero-indarkeriari aurre hartzea, kasuak lehenbailehen detektatzea eta biktimei arreta eraginkorra ematea, horretarako bereziki hezkuntza-komunitate osoa inplikatu*»), ez dela lortu gainerako erronka eta helburuetan lortutako garapen- eta betetze-maila bera. Horrek pentsarazten digu oraindik ere asko dagoela egiteko, bereziki harremanen eta indarkeria matxistaren prebentzioaren esparruan, eta horretarako beharrezkoa dela hezkuntza-komunitate osoaren inplikazioa eta lankidetzak.

Nabarmentzekoa da lege-aurreproiektuak hezkuntza-sistemaren balioak ardatzetan definitzen dituela. Ardatz horien artean («izatea», «jakitea» eta «egotea» bezala definituak), bereziki aipatu behar da «jakitea»; izan ere, estatistikek emandako datuen azterketan adierazi den bezala, zientziaren esparruan emakume erreferente falta izateak ondorioak ditu ikasketak aukeratzeko orduan, eta baita, ondorioz, nesken lan-eremuan ere. Era berean, horrek eragina du, bai mutilentzat bai



neskentzat, esparru guztietan jakintza sortzeko emakumeen gaitasunez sortzen den ikuspegian.

### **Baliabideak eskura izateko dauden desberdintasunak ezabatu edo gutxitzeari**

dagokionez, txostenak dio ez dela desberdintasunik ikusten baliabideetan, espazioari, denborari, irakaskuntzaren doakotasunari eta hobetzeko palankei dagokienez, eta emakumeek eta gizonek baldintza eta eskakizun berberekin dutela hezkuntzarako eta prestakuntzarako sarbidea. Hala ere, erronka gisa aipatzen da Lanbide Heziketako zenbait familia tekniko-industrialetan eta maila zientifiko-teknologikoetan emakumeen parte-hartze handiagoa sustatzea. Horrek agerian uzten du jakintza-adar bat eskaintzeak ez duela bermatzen, berez, prestakuntza-aukeretan eta sarbidean egon daitezkeen sexuaren araberako hasierako desberdintasunak gainditzea.

Atal horretan bertan adierazten da, era berean, txostenari atxikitako datu estatistikoek berresten dutela emakumezko ikasleen errendimendu akademikoa altuagoa dela gizonezkoena baino irakaskuntzaren maila guztietan, baina halaber, errendimendu handiago horrek ez duela ekartzen lan-merkatuan aukera handiagoak edo hobeak izatea, edo emakumeei aitorpen profesional handiagoa egitea.

Datu horiek guztiek berretsi egiten dute trantsizio akademiko-laboralean eta lan-merkatuan bertan genero-arrakalak daudela; horrek denak erakusten du emakumeek desabantaila eta zaurgarritasun-egoera handiagoak dituztela. Horri gaineratu beharko litzaioke emakumeek Haur eta Lehen Hezkuntzan duten presentzia handiagoa sexu-genero sistemak eta lanaren banaketa sexualak aldeztu aurretik sortutako ideia sozialekin lotuta dagoela. Izan ere, ideia horiek



desprestigiatu eta gutxietsi egiten dituzte zaintza-lan horiekin neurri batean edo bestean lotu daitezkeen jarduera guztiak, eta, bestalde, nolabait oraindik ere onartzen da lan horiek emakumeei «dagozkiela», gizonen baino neurri handiagoan. Horretarako, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legeak bere jardun-printzipioen artean jasotzen du, alde batetik, EAEko botere publikoek etxeko lanak eta zaintza-lanak politika publikoen funtsezko elementu gisa aitortzea sustatu behar dutela, eta, bestetik, ekintza espezifikoaren bidez, gizonak berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka kontzientziatu eta inplikatzeko, eta erantzukizuna izatea eta parte hartzea sustatuko dutela, bai eta berdintasunezkoak ez diren maskulinitateak zalantzan jartzea eta desagerraraztea ere.

Araudiaren ondoriozko onuretan edo emaitzetan emakumeek eta gizonen izan beharreko presentzia orekatuari dagokionez, txostenean aipatzen da oraindik ere emakumeek behar baino presentzia txikiagoa dutela hezkuntza-sistemako zuzendaritza-organoetan eta ardura-postuetan. Hala ere, ondorengoak ere badio: *«Legearen erregelamendu-garapen gisa bultzatzen diren neurrien bidez – hala nola eskola-kontseiluen eta/edo Euskara eta Hizkuntzak Ikasteko Institutuaren osieran presentzia izatea–, epe luzera emakumeen parte-hartzea handitzea aurreikusi da»*. Horri dagokionez, adierazi behar dugu arauak ez duela bere artikuluetan aipatzen organo horien osieran emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua bilatuko den, eta txostenean ez dela zehazten nola garatu nahi den eta nola egingo den betetze horren jarraipena; beraz, interesgarria litzateke alderdi horretan sakontzea, baita zuzendaritza-organoetan emakumeen ordezkariak txikia zuzentzeko neurriak ezartzea ere.



Bestalde, hezkuntza-eremuari lotutako **gizarte-arauen eta balioen eraginari** dagokionez, txostenak nabarmentzen du etorkizuneko legeak eragin positiboa izango duela; izan ere, *«aurreproiektuaren helburuetan eta printzipioetan emakumeen eta gizonen berdintasunera bideratutako hezkuntza bermatzea dago jasota, bai eta hezkidetzaren aldeko eskola-eredua lortzea ere»*. Ildo horretatik, eta hezkidetzaren helburuak bilakaera-etapa guztietako jakintza-arlo eta diziplina guztien curriculumaren diseinuan eta garapenean integrazteko aurrera egiteko, bai eta arauaren genero-eragina neurtzeko ere, komenigarria izango zen honako hauek ere aztertzea:

- 4/2005 Legearen 29. artikulua xedatutako hezkidetzaren helburuak txertatuta, curriculumaren genero-ikuspegitik garatu duten ikastetxeen kopurua.
  - Hezkidetzaren prestakuntza duten irakasleak.
  - Egindako berdintasun-diagnostikoen eta -planen kopurua.
  - Genero-ikuspegia txertatua duten ikastetxeen planak.
  - Genero-ikuspegia txertatua duten proiektu pedagogikoak.
- 
- Hezkuntza-etapa guztietan genero-ikuspegira egokitutako hezkuntza-material berrikusiak.
  - Irakasleek oraindik ere ikasleekiko dituzten jarrera eta asmo desberdinak eta inkontzientziak.
  - Indarkeria matxistako egoerentarako ikastetxeen neurriak edo protokoloak.

Izan ere, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legeak 29. artikuluan ezarritakoaren ildotik, hezkidetzaren eskolak honako helburu nagusi hauek ditu:

1. Hezkuntza-arloan egiten den araudiak berdintasun- eta hezkidetzagintza betetzen dituela bermatzen jarraitzea.
2. Emakumeen jakintza eta beren ekarpen sozial eta historikoa diziplina guztietan txertatzea.
3. Irudien eta hizkuntzaren erabilera inklusiboa egitea, bi sexuen irudi plurala bermatzeko, genero-rol eta -estereotipoak alde batera utzita.
4. Orientazio akademiko eta profesional ez-sexista bermatzea: oraindik ere indarrean dauden genero-estereotipoez ohartarazi behar zaie irakasleei, ikasleei eta familiei, eta orientazioa eman behar zaie, orientazioan eragina izan dezaketen sinesmen eta aurreiritzi sexistak desagiteko.
5. Berdintasuna ezkutuko curriculumean eta ageriko curriculumean sartzea: hezkuntza-sisteman ezartzen diren edukiak berrikusi beharko lirateke ikuspegi feminista batetik, tradizionalki femeninoak izan diren eta ikusezin bihurtu diren esferena barne (hala nola zaintzaren etika) eta irakasleek, familiak eta ikasleek gainerakoekin duten elkarreraginean dituzten arauak, balioak, jarrerak eta portaerak ere berrikusi beharko lirateke.
6. Aniztasuna haren forma guztietan txertatzea: sexuari eta generoari buruzko ezberdintasunak zein klase sozialari, kulturari, jatorrizko herrialdeari, erlijioari, sexu-aukerari eta abarri dagozkienak.
7. Baliabideen eta espazioen erabilera ekitatiboa sustatzea, guztientzako erabilera orekatua bermatuta.
8. Emakumeen aurkako indarkeria prebenitzea eta tratu ona sustatzea: indarkeria gure gizarte desorekatuen egiturazko osagaia da; horregatik, beharrezkoa da kritikoak izatea menderatze- eta mendekotasun-eskema patriarkaletan oinarritutako harremanekin, tratu onetan heziz, justiziaren etikatik eta zaintzaren etikatik abiatuta.

4/2005 Legearen 29. artikulua horren agindua gauzatzeko, ezinbestekotzat jotzen dugu arauaren testuan zortzi zutabe horiek sartzea, zeharka edo egokituz jotzen den moduan; izan ere, hezkidetzaren arloan, horiek dira emakumeen aurkako indarkeria prebenitzen dutenak, eta ikastetxe baten ekintza guztiak sostengatzen eta garatzen dituztenak, bai ikasgelan, bai irakasleen prestakuntzan, baita antolaketan ere. Era berean, interesgarria litzateke zutabe horiek hezkuntza-esparruko estamentu guztietan iragaztea, Hezkuntza Saitetik hasi eta ikastetxeetaraino.

Bestalde, **arauak diskriminazioa saihesteko eta berdintasuna sustatzeko araudia eta tresna juridikoak betetzea bermatuko duela** baieztatzen da, eta txostenak ondorioztatzen du etorkizuneko legea aplikatzearen emaitzak eragin positiboa izango duela emakumeen eta gizonen arteko egoera desberdinean. Gogorarazi behar da, generoaren arabera eraginari buruzko txostena egiteak Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako 19. artikuluan ezarritakoa betetzen badu ere, lege horren eskakizunak zabalagoak direla, eta horiek betetzeak ez duela berez ekartzen eragin positiborik.

Era berean, eta emakumeen eta gizonen egoeran aurreikusi den etorkizuneko eragin positibo hori ezagutze aldera, **arauaren edukiaz haratago**, lege-aurreproiektu hau betetzeko, garatzeko eta aplikatzeko jarraipen- eta ebaluazio-jarduerak egitea gomendatzen da, bai erdibidekoak, bai amaierakoak.

Hala ere, **arauaren edukiari dagokionez**, genero-ikuspegia integratzen aurrera egiteko, honako gomendio eta hobekuntza proposamen hauek egiten ditugu:

- Testuan zehar «berdintasun» eta «ekitate» terminoak bereiztea, kontzeptu sinonimo gisa erabiltzen dira eta. «Berdintasuna» da herritar guztiak eskubide eta betebeharretan parekatzen dituen printzipioa, eta horrek esan nahi du emakumeen eta gizonen jokabide, jomuga eta behar desberdinak modu berean aintzat hartu, baloratu eta sustatu behar direla. Horregatik, aukera-, tratu- eta eskubide-berdintasunaz hitz egiten da; hau da, emakumeek eta gizonek egoera guztietan eta gizartearen esparru guztietan baldintza berberak izateaz, beren gaitasun pertsonalak garatzeko eta erabakiak hartzeko libreak izateaz. «Ekitate» terminoak, aldiz, justiziaren ideiarri egiten dio erreferentzia; izan ere, gizartean onartu den justiziaren ideiarekin arabera, bakoitzari dagokiona ematea da, pertsona edo gizatalde bakoitzaren (sexua, generoa, klasea, erlijioa, adina) baldintza edo ezaugarri espezifikoak aitortuta. Aniztasuna aitortzea da, baina horrek ez du diskriminaziorako arrazoirik ematen.
- Zioen azalpenean, eta hezkuntza-sistemak sustatu behar duen bigarren ardatz gisa, funtsezkoa iruditzen zaigu *emakumeen jakintza* txertatzea eta sartzeta. Emakumeek humanitatearen historian zehar esparru guztietan egindako ekarpenak ikusezin bihurtzea da ikasgelako materialen eta testuliburuaren gabezia nagusietako bat. Gure kulturaren androzentrismoa nagusitu da, eta hutsune bat sortu du emakumeen lana ezagutzeari eta aitortzeari dagokionez.
- EAEko hezkuntza-sistemaren printzipioei buruzko arauaren 2.i) artikuluan, *emakumeen eta gizonen arteko berdintasun erreal eta eraginkorraren kontzeptua eta aniztasunaren balioa errotzearena bereiztea*. 4/2005 Legearen 3. artikulua agindua betetzeko, proposatzen dugu, horren ordez, atal batean aukera-, tratu- eta eskubide- berdintasunaren printzipioa aipatzea, eta beste batean, aniztasun eta desberdintasunaren errespetuarena.

- EAEko hezkuntza-sistemaren jakintzaren balioei buruzko 6. artikuluan, teknologia aurreratuen eta disruptiboen ezagutzarekin eta trebetasunekin batera, *emakumeen jakintza eta haien ekarpen sozial eta historikoa* ere integratzeko ideia errepikatzen dugu, gure kultura ezagutzeko eta gizartean egindako lana aitortzeko. Horrek II. Hezkidetza Planean jasotako zutabeetako bat beteko luke.
- 9. artikuluko 5. paragrafoan, curriculumari eta oinarrizko gaitasunei buruzkoan, «ekitate» terminoaren ordez «berdintasuna» erabiltzea. Era berean, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen 29.1 artikulua agindua betetzeko, artikuluko horri paragrafo berri bat gehitzea proposatzen dugu, honako hau jasoko lukeena: *«Hezkuntza Sailak hezkidetza-proiektuak egingo ditu, behar diren neurrien eta baliabideen bitartez, eta hezkidetza-helburuak integratuko ditu hezkuntzako maila guztietako jakintza-arloetako eta diziplinetako curriculumaren diseinuan eta garapenean».*
- Haur Hezkuntzari buruzko 10.4 artikuluari «berdintasunezko» edo «berdintasun-egoerako» terminoa gehitzea. Eta honela idatzita geratuko litzateke: *«Haur-hezkuntza borondatezkoa da, eta ikasleen garapen kognitibo, afektibo, sozial, artistiko eta fisikoan laguntzea du helburu, bizikidetzarako balio zibikoetan eta berdintasunezkoetan oinarritutako hezkuntza sustatuz bereziki».*
- Era berean, 11. artikulua bigarren paragrafoan, Oinarrizko Hezkuntzari buruzkoan, oinarrizko hezkuntzaren azken helburuari *indarkeriarik ezaren eta giza eskubideen kontzeptuak* gehitzea proposatzen dugu. Eta honela idatzita geratuko litzateke: *«..., eta ikasleen gaitasunak dimentsio guztietan ahalik eta gehien garatzea du helburu, subjektu indibidual eta pertsona*

*aktibo gisa integratuz, garapen sozialarekin, indarkeriarik ezarekin eta giza eskubideekin, ingurumenaren garapen iraunkorrarekin eta planetaren babesarekin konprometituta».*

- Lehen Hezkuntzari buruzko 12.2 artikulua, hezkuntza-etapa horretan garatu beharreko gainerako trebetasun eta gaitasunekin batera, *harreman demokratikoen eta indarkeriarik ezaren garrantzia* ere jaso beharko luke.
- Azkenik, 14.2 artikuluan, Batxilergoaren azken helburuari buruzkoan, proposatzen da berdintasunean, tratu onetan eta giza eskubideekiko errespetuan oinarritutako *harreman sentimentalen garrantzia* sartzea, pentsamendu kritikoa garatzeko eta finkatzeko berezko balio gisa.
- Era berean, ikastetxe publiko guztietan, ordezkari-organoren, hezkidetzaren arduraduna eta berdintasun-ordezkaria izendatzen jarraitzea proposatzen da. Ildo horretatik, interesgarria litzateke lege-aurreproiektuan argitzea itunpeko ikastetxe pribatuetan zein ikastetxe pribatuetan hezkidetzaren arloan jarraitu beharreko tratamendua eta jarraibideak.
- Beharrezkoa izanez gero, bai azterketa- eta informazio-batzorde espezifikotan, bai Eskola Kontseiluan era daitezkeen azterketa- edo lantaldeetan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-arloan adituak diren langileak izatea, hezkuntza-eremuan berdintasuna sustatzeko asmoz.
- Legean jasotzen diren partaidetza-, kontsulta- eta aholkularitza-organoren guztietan emakumeen eta gizonen ordezkari-orekatua bermatzea; hala nola ikastetxeko Eskola Kontseiluan, EAeko Eskola Kontseiluan, Euskal Eskola Publikoaren Kontseiluan eta udal hezkuntza-kontseiluetan.
- Komenigarria litzateke hezkuntzako ebaluazio-, diagnostiko-, ikerketa- eta/edo prospekzio-eginkizunak betetzen dituzten langileek, bai eta adierazleak, datuak, azterketak eta jarduteko proposamenak dituztenek ere, hezkidetzari eta berdintasunari buruzko prestakuntza izatea.

- Era berean, eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen 32. artikulua ezartzen duen bezala, hezkuntzako profesionalei zuzendutako etengabeko prestakuntza eskaini beharko litzateke, bai banaka, bai ikastetxeen bidez.
- Hezkuntza-administrazioak, alde batetik, eskola-komunitatea osatzen duten langileen hezkidetzari buruzko prestakuntza sustatuko du, eta, bestetik, familiak hezkidetzari buruzko gaietan sentibilizatzea eta prestatzea sustatuko du, gurasoen elkarrekin eta federazioen bitartez.
- «Ekitate» eta «berdintasun» terminoak parekatzeari dagokionez, proposatzen dugu 98.4.b) artikuluan «ekitate» terminoaren ordez «berdintasuna» erabiltzea.

Amaitzeko, **hizkuntzaren erabilera inklusiboari eta ez-sexistari** dagokionez, gaztelaniazko testu osoan zehar hizkera berrikustea proposatzen dugu, ahalegina egin arren, maskulinoan adierazitako termino ugari agertzen baitira bertan; hala nola, «los profesionales», «Cuerpo de Inspectores de Educación», «los titulares», «los demás»...

Txosten honetan aipatutako guztia kontuan hartuta, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legean jasotako xedapenak errepikatu gabe, gogorarazten da Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Legearen proiektuak Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako Legearen agindu guztiak osa ditzakeela eta osatu beharko litzukeela.



Gasteizen, 2022ko urriaren 24an